

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4267

1706/2024 EBAZPENA, irailaren 2koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoarena, zeinaren bidez María Ángeles García Fidalgo andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerkuntzako Zuzendariorde kargutik kentzen baita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

1347/2018 Ebazpenaren bidez, María Ángeles García Fidalgo andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerkuntzako Zuzendariorde izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

Ebazten duen organoa eskuduna da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.2 artikuluaen bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera. Horren arabera, lanpostu hori hutsik badago, erakundeko Zuzendaritza Medikoak hartuko ditu bere gain zuzendari-gerentearen eginkizunak.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Ángeles García Fidalgo andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Ikerkuntzako Zuzendariorde kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko irailaren 16ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 2a.

Arabako ESiko zuzendari medikoa,
LANDER HIJONA MURUAMENDIARAZ.